

Espezie arrotz inbaditzaileak

Berandu izan daiteke

Guk geuk zabaldu genien atea, eta orain bota egin nahi ditugu. Duela gutxi arte banaka egiten genien arreta, orain arazo bakar izendatu ditugu. Espezie inbaditzaileak beti existitu dira, baina gure eraginez bihurtu dira mehatxu. Agertu ahala borrokatzen gara euren aurka, banan-banan, baina guztientzako plana nahi genuke. Berandu izan daiteke... eta garesti.

UNAI BREA

1894AN *XENICUS IYALLI* hegazti espeziea desagertu zen betiko. Txikia zen, ezin zuen hegan egin, eta haren bizitoki bakarra Stephen uhartea zen, Zeelanda Berriko bi irla nagusien artean dagoen haitz puska handia besterik ez. Dakigula, hamabost ale inguru gelditzen ziren espeziea iraungi zenean; den-denak farozainaren katuak hil zituen, hilabete gutxian. Katuak ugazabarengana eramaten zituen gorpuak, eta hala izan genuen gizakiok espezie haren berri, gutxi gorabehera berau desagertzeaz batera. *Xenicus Iyalli*-a deskribatu eta katalogatu orduko, ez zen munduan ale bizi bakar bat ere.

Muturreko adibide horrek espezie arrotz inbaditzaileen arazoa ulertzeko gako nagusiak ematen dizkigu. Nola definitu halako espezieak? Batetik, arrotz: beraiena ez den habitatera kanpotik eramanak dira, nahi gabe edo, farozainaren katu bezala, nahita. Bestetik, inbaditzaile: kalte egiten diete aurrez zeuden ekosistemei. Batzuetan espezie bat desagerrarazteko gai ere izan daitezke. Luis Guijarro kazetari eta ingurumeneari adituak dio, *La invasión silenciosa* (Inbasio isila) liburuan, 1600. urtetik munduan izandako iraungitzeen %39 espezie arrotzek eragin dutela. Stephengo katuarena ez da kasu bakarra izan, bitxietan bitxiena izan arren. Gaur egun, munduko erakunde publikoak zabaltzen ari diren

Panpa-lezkaren kontrako kanpaina abiatu zuen iaz Bizkaiko Foru Aldundiak. Landare hori errotik kentzeko asmoa agertzen du Erandion ipinitako errotuluak, baina adituen esanetan jadanik ezinezkoa da hori. Eskumako orrialdeko argazkian panpa-lezkaz jositako eremua ikus daiteke, Getxon.

mezua argia da: espezie arrotz inbaditzaileak biodibertsitatearen aurkako bigarren mehatxu nagusia dira; habitatak desagertzea da lehena. Kasu bietan, geu gara ia erantzule bakarrak.

Kontzeptu berria aspaldiko arazoa izendatzeko

Jorge González biologoaren ahotik ezagutu ditugu espezie arrotz inbaditzaileak definitzeko erabiltzen diren ezaugarriak. Dioenez, hala daukate ezarrita oro har nazioartean dauden hitzarmenek, baina alderdi guztiak ez daude oraindik guztiz finkatuta. “Han-hemenka, ez dakit nongo katalogoan, edo ez dakit nongo plangintzan, beste faktore batzuk agertzen dira, gizakiari kalte ekonomikoa egitea esaterako”. Hala, espezie inbaditzaile zerrendetan sartzen dira ingurumenari ez, baizik eta biltegietan gordetako zerealei kalte egiten dieten animaliak, besteak beste.

Gonzálezek EAEko fauna arrotz inbaditzaileari buruzko azterketa egin zuen iaz, Eusko Jaurlaritzaren aginduz. “Ikuspuntu ekonomikoa ekuaziotik atera genuen, jakina; ingurumenaren kontserbazioaren eremuan gabiltza, besterik ez”. Baina oraindik indefinizioa dago, eta horrek eragiten du batzuetan inbaditzaileen multzoan sartzea kalte bakarra nekazaritzari egiten dioten zenbait espezie. “Ez dut uste presio talderik dagoenik



ASIER MENTXAKA



ASIER MENTXAKA

horren atzean”, azaldu digu Gonzálezek, “arazoa da gai honetan hasiberriak garela”. Horren adibide ederra da Eusko Jaurlaritzak oraindik orain eskatu izana arazo honen gaineko lehenbiziko azterketa. Ez pentsa, hala ere, Lakuan bereziki atzeratuta dabilzanik.

Gizakiak hautsitako oreka

Munduko erakundeek orain dela hamarren bat urte sumatu zuten espezie arrotz inbaditzaileen aurka zerbait egiteko beharra, Jorge Gonzálezek esanetan. Fenomenoa askoz lehenagotik da ezaguna, baina ez da arazo globalizat hartu orain gutxi arte. Lehen banaka ekiten zitzaion kasu bakoitzari, sortu ahala; sistematizazioa oraintsu hasi da. Beharrak agintzen du: arazoa askoz larriagoa da orain Stephen uharteko katuaren garaian baino.

Landare zein animaliak betidanik mugitu dira batetik bestera, lurraldeak kolonizatuz, elkarrekin lehian, baina horrek ez die ekosistemi berebiziko kalterik egin. Nola egingo die, borroka hori bada naturaren ezaugarrietako bat? Beste behin, gizakiaren esku-hartzeak hautsi du oreka. Espezieen joan-etorrien bektore nagusia gara: animalia eta landare merkataritza –legez kanpokoa barne–, arrantza edo ehizaren mesederako espezieak sartzea euren ez den habitatean, gure garraibideetan ohar-kabea daramatzagun hazi eta larbak... Mugimendu gehiegi denbora laburrean. Gainera, ingurumen arloan egindako kudeaketa eskasak sarbidea errazten die kanpotik datozen

espezieei. Ekosistema osasuntsuetan nekez sartzen dira, aurretik kaltetutakoetan erraz.

Esandakoaren adibide argia da panpa-lezkarena. Bizkaian bizi zaretenok ohituta irudiak ikusten, beste euskal herrialdeetakoak ez hainbeste, oraingo. Aspalditik apaingarriztat erabili izan da landare mota hau, baina gurean orain urte gutxi azaldu zuen ahalmen inbaditzailea. Gaur egun erruz hazten da Bizkaiko bazter guztietan, ugaltzeko daukan gaitasun ikaragarriari esker, besteak beste. Alabaina, gaitasun hori ez luke nahikoa gure laguntzarik gabe. Panpa-lezkak perturbazio edo aldaketaren bat jasandako eremuak behar ditu; hor errotzen da lehenik, gero zabaltzeko. Eta perturbazio gehienak gizakiak eragindakoak dira. Ohar zaitezte panpa-lezka errepide ertzetan hazten dela gehien, errepide horiek egitean iraulitako lurra primerako orubea baitu.

Nola Jorge Gonzálezek animaliena, landare arrotz inbaditzaileen azterketa egin zuten iaz, Eusko Jaurlaritzak eskatuta halaber, Mercedes Herrera eta Juan Antonio Campos EHUko botanikariek. Diotenez, landare batzuk oso balduta daude dagoeneko, panpa-lezka kasu baterako, eta ezinezkoa izango da haiek errotik kentzea, erakundeak saiatu arren. Berandu dator saiakera. Herreraren ustez, azken urteetan espezie inbaditzaileen arazoa aintzat hartzen hastea aurrerapausoa izan da, “baina gu 1994tik ari

Hego haizea baino zaharragoak

Animalia baten eta landare baten arteko aldea? Animaliak mugitu egiten gara. Animaliak gosea, hotza, logalea... sentitzen duen mugitu eta behar hori asetzeko toki egokia bilatu dezake. Landareak ez: lehorte, izotza, haizetea, sua datorkiola ere hantxe iraun behar. Etengabeko pairatze horretara egokitu eta irautetik bizitzeko koskari adaburuzt ekin diete beti. Beti, hego haizea baino zaharragoak baitira landareak!

Landareen jokabidea ulertze aldera, berezko izaera hau aditzea beharrezkoa da. Edozein egoerari aurre egiteko ezin konta ahala trikimailu garatu dute. Bizimolde honek ardatz bat du, bizidun guztiona: bere espezieak, eta espeziearen barruan bere endak, eta endaren barruan bere erlijioak, eta erlijioan bere kulturakoak, eta kulturen bere odolak ahal beste indarrekin iraun dezala. Landareentzat ere, bere odolekoak ez beste guztiak arerio. Honela, naturan kaosa da oinarri, milaka segada txikiz osatutako guda erraldoia. Beharrezkoak dituzten eguzki, ur, elikagai eta abarren xerkan.

Bizitzeak dakar ugaltzea: beste landareei gaina hartuz luberriak kolonizatzea. Bera bezalako berriak sortzeko katramila guztiak erabiliz: adar edo hosto pusketak, sustraiak, erraboila, patatak, haziak... Eta sail berriak bereganatzeko puska hauek hedatu egin behar: haizea, ura eta animaliak gara eraginkorrenak. Haizeak ehunka

kilometrora eramane dezake hegal egokiz diseinatutako hazi bat. Koko ale batek itsaso, hondartza guztiak ezaugu ditzake. Animaliak, ileetara itsatsita edo fruitua jan eta hazia ondo simaurtuta zabalduz, laguntzen diegu.

Batzuen laguntzailea eta beste batzuen arerioa da gizakia, naturako etengabeko kaos orekatzailearen erailsle. Inbaditzaileen kontu hau zuriketa soila da, ustel. *Cortaderia selloana* panpa-lezka luberri zalea gelditze-ko, urbanizatzea eta txikizioa aldatu beste aukerarik ez da. *Baccharis halimifolia* itsaso zalea da, baina urak azpian hartzen ez dituen lurrik behar dituzenez, ibaien arroetan matarrasan botatzen diren pinudien kudeaketa aldatu behar da, gorritutako sailtako lur onena urak garraiatu eta madura bazterretan pilatzen baitu. Sasi-akaziaz, *Robinia pseudoacacia*, zer esan... Basoen kudeaketa kontu soila da eta, neure iritziz, etorkizun onenetakoa duen zuretako bat ematen du. Adibidez, neure etxeko zurajearen parte handiena sasi-akaziazkoa da. Kopeta behar da guk sortutako belaze, pinudi, harizti eta pagadi kolonia izugarriei ez ikusiarena egin eta beste erlijio batzuetako landareen koloniatxoei begira errieta egiteko. Zazpi azaleko kopeta.

Jakolba Errekondo

gara arriskuaz ohartarazten, eta orduetik hona zenbait espezie izugarri zabaldu dira". Arestian espezie arrotz inbaditzaileak dituzten ezaugarriez mintzatu gara. Bi aipatu ditugu, baina bada hirugarren bat: ugaltzeko gaitasun handia dute. Eta sarritan beste abantaila bat gehitu behar zaio horri: ez dute etsai naturalik iritsi direneko habitatean.

Tokian tokikoari aurre egiten, oraingoz

Azkenik arrisku globalaz jabeturik, zerrendak, katalogoak, planak... sortzen dira mundu osoan, baina hasierako urratsak besterik ez dira. "Katalogoa sortzean figura sortzen da, definizioa, baina gero mamiz bete behar da hori, datuak jaso behar dira, eta horretan gabiltza", dio Jorge Gonzálezek. Arazo zehatzei aurre egiteko ekintzak ugaltzeko doaz, baina plan integralak osatzeke daude. Momentuz larrialdiez arduratzen gara, eta bada lan nahikoa. Garesti ordaintzen den lana. Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzak 306.000 euro erabili zituen 2007an *Baccharis halimifolia* landare espeziea Urdaibaitik kentzeko. Urdaibaiko zati batetik, esan nahi baita. 2008an, aurreko urtean ukitu ez ziren lekuetan jardun zuten, baina aurreko urtean ukitutakoei ere arreta-

Espezie arrotz inbaditzaileak ez dira erraz sartzen ekosistema osasuntsuetan, baina bai aurretik kalteren bat jasan dutenetan

rik eskaini behar izan zieten, *Baccharis*-a guttiz kentzea ez delako erraza: %15 inguru berriz hazten da. Hurrengo orrialdean ikus dezakezue, zehatz-mehatz, nola kentzen den landarea. Lan handia eskatzen du, eta lan hori ordaindu egin behar da.

Baccharis-a espezie bat baino ez da ordea. Mercedes Herrerak eta Juan Antonio Camposek 78 landare inbaditzaile antzeman dituzte EAEn, eta horietatik 21ek arreta berezia merezi dutela esan dute, oso ugariak direlako kontserbazioaren alorrean lehenetsia daukaten ekosistemetan: hezeguneak, padurak, ibai ertzak... "Kasu batzuetan, gainera, den-dena estaltzen dute, beste landareak haztea eragotziz". Espezie askok merezi lukete arreta, baina momentuz gutxi batzuen aurka baizik ez da ekiten Hego Euskal Herrian. EAEn, *Baccharis halimifolia* eta panpa-lezka Bizkaian –bigarrenaren kasuan alferrik, esan dugunez–, eta *fallopia japonica* Gipuzkoan. Animalietan, antzera. Jorge Gonzálezek egindako zerrendan hogeit hamar espezie dauden arren, oraingoz hiruzpalauen kontra ekiten da, alarma gehien pizten dutenen kontra hain zuzen. Zebra-muskuilua da adibiderik ezagunena. 2001ean Tarragonan (Katalunia) antzeman zutenetik, Ebro ibaian gorako eremuak kon-



IÑIGO AZKONA

Baccharis halimifolia landarea Urdaibaitik kentzeko saioa egiten ari da Eusko Jaurlaritza. Abeltzaintzan erabiltzen ziren larreak abandonatzeak eragin zuen *Baccharis*, Amerikatik datorren espeziea inguru osoan zabaltzea, 90 hektarea estaltzeraino. Ale bakoitzak lau behargin hamarren bat minutuz aritzea eskatzen du. Lehenbizi, motozerraz ebaki behar da enborra, sorta honetako bigarren argazkian ikus daitekeenez. Zatiak ebaki ahala, sutara botatzen dira eta, azkenik, moztu gabe geratu den enbor zatiari glifosatoa ematen zaio, pintzelez. Glifosatoa ingurumenari kalte egiten dion herbizida da, eta horregatik ematen zaio landare bakoitzari banan-banan. Kaltea berdin-berdin egiten duela uste dute batzuek.

kistatzen joan da, Euskal Herrira iritsi arte. 2008an, Nafarroako Gobernuak 250.000 euro banatu zituen diru-laguntzetan, muskuiluari aurre egiteko. Hala ere, foru erkidegoan Iruñeko Udala ari da animalia inbaditzaileen arloan lan handiena egiten, Gobernuko iturriek adierazi digutenez. Jendeak bazter batean abandonatuta uzten dituen maskotak harrapatzea da zeregin nagusia, Floridako dortokak batik bat.

Elisa Sainz de Murietak, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate zuzendariak aitortzen duenez, arazoari modu globalean heltzeko gaitasunik ez dago momentuz, horregatik lehentasunak ezarri dituzte. *Baccharis* Urdaitatik botatzen diharduten bitartean, EAE osotik kentzeko plan orokorra ere egiten ari dira, baina hori gauzatzeko ezinbestekoa da kanpoko laguntza. Europara jo behar da soske, eta hori espezie bakar batentzat.

Europar Batasunean, LIFE egitasmoa arduratzen da espezie arrotz inbaditzaileei

aurre egiteko diru-laguntzak emateaz. Baina ez dauka aurrekontu handirik. Hala aitortu zuen Europar Batzordeko kide batek, 2008ko urtarrilean Madrilan egindako Espezie Arrotz Inbaditzaileei Buruzko Europar Biltzarrean. Ondorioz, LIFEk finantzatzen dituen proiektu gehienak txikiak eta tokian tokikoak dira, espezie bat dagoeneko arazo bihurtu denean abian jarritakoak eta estrategia bateraturik gabe, salbuespenak salbuespen.

Aipatutako biltzarrean elkartu zirenek atera zuten ondorioetako bat izan zen espezie arrotz inbaditzaileei aurre egiteko modurik eraginkorrena prebentzioa dela. Gaur egun hutsaren hurrengo da, eta horren zergatia ezagutza eza izan litekeela aditzera ematen du biltzarrearen laburpen gisa egindako adierazpenak, espezie inbaditzaileei buruzko ikerketa areagotu behar dela esaten baitu, habitat berrietara iristeko erabiltzen dituzten bideei buruzkoa barne.

● Espezie arrotz inbaditzaileak

Ekologistak neurri eske

Batzuek uste dute, ordea, prebentzio eragin-korra egin daitekeela oraintxe bertan. Madrilgo biltzarra egiten ari zela, Ecologistas en Acción elkarteak neurri sorta proposatu zuen, habitat berrietan ahalik eta espezie inbaditzaile gutxien sartzeko xedez. Besteak beste, ekologistek eskatu dute mota horretako espezieak maskota modura edukitzeko edo saltzeko debekua ezar dadila; espezie inbaditzaileak lurralde berrietan sartzeko debekua ezar dadila –oraindik ere ehiza eta arrantza sustatzeko halakoak egiten direla salatu dute–; espezie exotikoak hazteko etxal-deak eraikitzea debekatu dadila eta dagoeneko existitzen direnak itxi ditzatela; espezie inbaditzaile batentzat garraio bide izan litekeen merkantzia guztien kontrol zorrotzagoa egin dadila; eta itsasontzietako lasta-urak kontrola daitezela, espezie askoren sarbidea direlako. Hala iritsi zitzaigun guri *Baccharis*-a.

Arau eta debekuak eskatu dituzte ekologistek, eta ez dira bakarrak. Mercedes Herrerak eta Juan Antonio Camposek, esaterako, gomendioak ez direla nahikoak uste dute, “arautegia behar da”. Eusko Jaurlaritzak prebentzioaren alorrean egindako ahalginek, oraingoz, sentsibilizazioa izan dute ardatz. Iaz, “landare inbaditzaileen erasoari” aurre egiteko kanpaina egin zuten, hein



Zebra-muskuilua gure inguruko animalia arrotz inbaditzaileetan ospetsuenetakoa da. Euskal Herrira Ebrotik etorri da, eta dagoeneko Araba iparraldeko urtegietan antzeman dute. Horrek esan nahi du Kantauriko isurialdera heldu litekeela laster.

handi batean landareekin lanean diharduten profesionali zuzenduta. Animaliak eta landareak saltzen dituen bizkaitar enpresa bateko ordezkariak esan digutenez, ez dago ezein landare espezie saltzeko debekurik, “panpa-lezka ez saltzeko gomendioa baino ez”. Animalietan, zebra-muskuilua da debekatutako espezie inbaditzaile bakarra. Bestela ere, inori ez litzaioke bururatuko ez saldu ez erostea. ■

ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun
Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com
web orria: www.hotelatalaia.com